

IRAKASGAI OSAGARRI EDO GEHIEGIZKO KREDITUEI BURUZKO ARAUTEGIA

GRADUKO IKASKETEN GESTIORAKO ARAUTEGIAN –eta aplikatu daitezkeen beste arautegi batzuetan ere–, "Matrikula eta Prezio Publikoak" III. kapituluko 20. artikuluan, ezartzen denez, ikaslea dagokion graduan dauden hautazko irakasgaietan baino gehiagotan matrikula daiteke.

Horretan oinarrituta, Arte Ederren Fakultateak IRAKASGAI OSAGARRI EDO GEHIEGIZKO KREDITUEI BURUZKO ARAUTEGI hau onartu zuen 2018ko ekainaren 20an egindako Ikastegiko Batzarrean:

1. Ikasleak, baimena lortzeko, eskaera dekanuari zuzenduta egin beharko du gehiezigoko hautazko kredituetan matrikulatu nahi duen ikasturtean.
2. Eskaera titulua eskatu baino lehenago egin behar da.
3. Matrikula osoa GRADUKO IKASKETEN GESTIORAKO ARAUTEGIAN –eta aplikatu daitezkeen beste arautegi batzuetan ere–, "Matrikula eta Prezio Publikoak" III. kapituluko 18. Artikuluan, ezarritako mugaren barruan egongo da.
4. Matrikula aldia ikasten berriro hasi nahi duten ikasleentzat (idazkaritzako izapideen egutegia) ezarritako berbera da, eta ikastegiko idazkaritzan egingo da.
5. Itxita ez dauden hautazko irakasgaietan bakarrik matrikulatu ahalko da.
6. Ikasketak amaitutakoan, minor bat baino gehiago gainditu izanaren aitortpena izanez gero, jakinarazi beharko du graduatuaren tituluaren aurrealdean haietako zein nahi duen agertzea.

Eskaera entregatzeko aldia automatrikularako ezarritako berbera da, eta irailaren 15a baino lehen ebatziko da.